ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko otsailaren 14a, ostirala • 18 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2020ko bigarren seihilekoko ordainagiriak**

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2020ko bigarren seihilekoaren kontribuzio errolda osaturik eta 2020ko urtarrilaren 31n onarturik, errolda jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea baina, aretoa irekitzeko eguna eta ordua finkatzeko, aldez aurretik jakinarazi beharko dute honako helbide elektroniko honetan: junta.villaluenga@gmail.com.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 10ean hasi eta maiatzaren 11n bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2020ko apirilaren 2an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Internet bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Villaluenga, 2020ko otsailaren 3a

*Lehendakaria*
*JUAN SALVADOR DOMINGUEZ LUIS*



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.02.14 06:34:11 Z